

Nola sortu

Google Analytics

kontua



Nola sortu Google Analytics kontua

Google-en tresna bati buruz ari garenez, Gmail kontu batean saioa hasi beharko duzu.

Google Analytics kontuaren jabetza edukiko duen Gmail-arekin sartu zaitez.

Orain, hurrengo estekan sartu: <https://analytics.google.com/>

'Configurar gratis' botoia sakatu zure kontua sortzen hasteko.




1. Kontuaren datuak

Jarraian, zure kontuaren oinarrizko datu hauek eskatuko dizkigute:

Kontuaren izena. Zure enpresaren izena idatzi.

Datuen erabilera partekatua konfigurazioa. Google Analytics-ekin partekatu nahi dituzun datuak hautatu itzazu.

‘Siguiete’ botoia sakatu.




2. Jabetzaren konfigurazioa

Gehenez, Google Analytics-en kontuek 50 propietate eduki ditzakete.

Jabetza bakoitzak webgune edo aplikazio jakin baten datuak aztertuko ditu. Hainbat izanez gero, hauetako bakoitzak bere jabetza propioa izan beharko du.

Ordutegi-eremua eta dagokion txanpona aukeratu.

‘Siguiente’ sakatu.






3. Zure enpresari buruzko informazioa

Sektorea, enpresaren langile kopurua eta Google Analytics zertarako erabiliko duzun adierazi.

‘Crear’ botoia sakatu.

.




Zure herrialdearen zerbitzu-baldintzak baita Google Analytics-rekin partekatuko dituzun datuei dagozkienak onartu itzazu.

Aipatutako jakinarazpenak posta elektronikoz jaso nahi izanez gero, hemengo erlaitzan hauta ditzakezu.

Ongi etorri Google Analytics-era!

'Web' aukeran sakatu.




Domeinua txertatu eta zure transferentzia-protokoloa (http:// ala https://) aukeratu. Jarraian, zure markaren izena adierazi.

Ikusitako orrialdeak aztertzeaz gain (besterik adierazi ezean, tresna konfiguraturuta dagoen bezala), hurrengo datuak neurtzeko aukera ere izango duzu:

- **Desplazamendu-maila:** bistaratzen den orriaren ehunekoa, egindako scroll mailaren arabera.
- **Irteera-klikak.** Beste webgunetara bidaltzen dituzten esteketan.
- **Barne-bilaketak.** Horretarako, bilatzailea eduki beharko duzu zure webgunean.
- **Bideo-interakzioak.** Erreprodukzio-kopurua, bistaratze-maila, eta bestelako datuak aztertzeko.
- **Fitxategi-deskargak.** Zure eranskinen deskargak aztertu ahal izateko (pdf, irudiak, bideoak, etab.).

‘Crear flujo’ sakatu.



Sortu duzun jabetzari esleitutako neurketa ID-a ikusi ahal izango duzu.

Google Analytics datuak jasotzen hasteko, jarraipen-kodea txertatu beharko duzu zure webgunean. Horretarako, 'Etiqueta global de sitio web (gtag.js)' botoian klik egin. Ikusiko duzun kodea kopia eta orrialde guztien <head>-aren ahalik eta goren erantsi ezazu.

Kodea ikutu nahi ez baduzu, hurrengo plugin-ak erabili ditzakezu (erabiltzen duzun teknologiaren arabera):

- **PrestaShop** – Módulo de Google Analytics (<https://addons.prestashop.com/es/informes-estadisticas/4168-ganalytics.html>)
- **Shopify** – Google Analytics Toolkit (<https://apps.shopify.com/easy-google-analytics-setup?locale=es>)
- **WordPress** – Google Analytics by BestWebSoft (<https://bestwebsoft.com/products/wordpress/plugins/-bws-google-analytics/>)

Funtzionatzen duela egiaztatzeko, Google Analytics-en sartu. Jarraian, 'En tiempo real' txostena aukeratu eta zure saioa behar bezala erregistratzen ari delaz ziurtatu zaitez.

